

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularreko zinegotzi Tomás Pascua Martínek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean babes ofizialeko etxebizitzaren eraikinetan zurezko egitura duten jasodurak direla-eta aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko Presako Neurrien abenduaren 11ko 6/2025 Legeak, 2025eko abenduaren 29tik indarrean denak, alokairuko etxebizitzaren parke publikoa zabaltzen laguntzeko tresna berriak jasotzen ditu. Besteak beste, aurreikusten du xehetasun-azterlan baten bidez baimena eman daitekeela titulartasun publikoko bizitegi-eraikinetan zuzkidura-bizitokiak ezartzeko, plangintza orokorra aldatu beharrik gabe.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak 2025eko urrian adierazi zuen bezala, neurri estrategiko bat da hori, etxebizitza publikoaren eskari gero eta handiagoari arinago erantzuteko aukera ematen duena, lehendik dauden eraikinetan esku hartzeko aukera ematen duelako eta garapen-peak nabarmen murrizten dituelako.

Testuinguru horretan, 2026ko martxoaren 2an, Eusko Jaurlaritzak sei aurreproiektu aurkeztu zituen, Arrasaten, Mutrikun, Gasteizen, Bilbon eta Leioan jasoduren bidez 189 zuzkidura-apartamentu eraikitzeko, Euskadin mota horretako ostatuak nabarmen areagotzeko estrategia zabalago baten esparruan. Hala ere, Donostia da iragarritakoen artean gaur egun horrelako proiekturik ez duen euskal hiriburu bakarra.

Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, Udal Gobernuak adierazi zuen eraikin jakin batzuetan zer jarduketa egin daitezkeen baloratzen ari direla, baina adierazi zuen horrelako esku-hartzeen egokitasuna kasuz kasu aztertu behar dela.

Aurrekoa ikusita, eta kontuan hartuta tresna horrek hiriko etxebizitza-arazoa arintzeko ahalmena izan dezakeela, beharrezkoa da dauden aukerak modu sistematikoagoan aztertzea, bai eta, hala badagokio, estrategia bat definitzea ere, tresna hori eraginkortasunez aprobetxatzeko.

Hori dela eta, hauxe da gure

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, gehienez ere sei hilabeteko epean, jasodurak izan ditzaketen etxebizitza babestuetara edo zuzkidura-bizitokietara bideratutako udal-titulartasun publikoko eraikinen inbentario bat egiteko, kasu bakoitzeko bideragarritasunaren azterketa teknikoarekin batera.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, azterketa horretatik abiatuta, zuzkidura-bizitokiak jasoduren bidez sustatzeko jarduketa-plan bat onetsi dezala. Plan horrek egikaritze-egutegi bat, helburu kuantifikatuak eta dagozkion finantzaketa-jarraibideak jasoko ditu, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzeko bideak aztertuko ditu.

Donostia, 2026ko martxoaren 20

Tomas Pascua Martin



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)  
20003 Donostia / San Sebastián



SAN  
SEBASTIÁN

Udal Talde Popularreko zinegotzia